

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2021eko apirila

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerek eta gaualdiak gora egiten jarraitzen dute 2021eko apirilean

Hala ere, hotel-establezimenduen % 28,1ek ez dute jarduerarik izan apirileko egun bakar batean ere

Eustatek landutako datuen arabera, 2021eko apirilean 93.844 sarrera eta 174.769 gaualdi erregistratu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan. Beraz, 2021eko martxoarekin alderatuta, % 4,4ko susperraldia izan da sarreretan, eta % 9,9koa gaualdietan.

COVID19aren pandemiari aurre egiteko 2020ko martxoaren 14an agindutako alarma-egoeratik aurrera, mugikortasunaren gainera muga aldakorra izan da. Nolanahi ere, 2020ko apirila izan zen hilabetea zeinetan hartutako neurriek turismo-sektorean eragin handiena izan zuten. Hotel-jarduera osasun arloko eta funtsezko langileetara mugatu zen, eta, beraz, serie gehienak ez ziren argitaratu, sekretu estatistikoa gorde zelako eta kalitate estatistikoko irizpideak zeudelako. Horregatik, ezinezkoa da 2020ko apirilarekin urte arteko edozein alderaketa egitea. Ondoren, denborazko alderaketa 2021eko martxoarekin egingo da.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia. 2021eko apirila

	Sarrerek		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia	
	2021/04	m/m-1 (%)	2021/04	m/m-1 (%)	2021/04	2021/03
EUSKAL AE	93.844	4,4	174.769	9,9	1,86	1,77
Estatukoak	80.641	5,1	147.584	10,8	1,83	1,74
Atzeritarrak	13.203	-0,1	27.185	5,6	2,06	1,95
ARABA/ÁLAVA	15.633	1,3	32.401	10,9	2,07	1,89
Estatukoak	13.688	0,9	28.113	10,2	2,05	1,88
Atzeritarrak	1.945	3,7	4.288	15,8	2,20	1,97
Vitoria-Gasteiz	11.684	6,0	24.469	10,1	2,09	2,01
BIZKAIA	40.003	8,0	74.290	9,3	1,86	1,84
Estatukoak	35.267	7,4	63.134	8,2	1,79	1,78
Atzeritarrak	4.736	13,0	11.156	16,0	2,36	2,30
Bilbao	23.276	-0,3	40.630	1,3	1,75	1,72
GIPUZKOA	38.208	2,0	68.078	10,1	1,78	1,65
Estatukoak	31.686	4,5	56.337	14,1	1,78	1,63
Atzeritarrak	6.522	-8,8	11.741	-5,5	1,80	1,74
Donostia / San Sebastián	21.352	-1,1	36.537	7,4	1,71	1,58

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Arabian, 2021eko apirilean 15.633 sarrera erregistratu dira eta 32.401 gaudi, aurreko hilean baino % 1,3 eta % 10,9 gehiago. Bizkaian, 2021eko apirilean, sarrerak % 8,0 igo dira, eta % 9,3 gaudiak; 40.003 eta 74.290 izan dira orotara, hurrenez hurren. Azkenik, Gipuzkoan, 2021eko apirilean 38.208 sarrera eta 68.078 gaudi izan dira, hil arteko % 2,0ko igoeraren ondoren sarreretan eta % 10,1ekoaren ondoren gaudietan.

Atzerritar jatorriko sarrerak sarrera guztien % 14,1 izan dira 2021eko apirilean; Estatu mailakoak, beraz, % 85,9. Gaudien banaketa antzekoa da: % 15,6 atzerritik etorri dira, eta % 84,4 Estatutik.

Aldeak ikusten dira Lurraldeen artean: Bizkaian, atzerrian bizi direnen sarrera- eta gaudi-kopuruak % 13,0 eta % 16,0 egin du gora, hurrenez hurren, aurreko hilabetearen aldean; Araban, % 3,7 igo dira sarrerak eta % 15,8 gaudiak; Gipuzkoan, berriz, hil arteko alderaketan % 8,8 jaitsi dira atzerritar jatorriko sarrerak eta % 5,5 atzerritar jatorriko gaudiak.

Euskal AEko sarreren batez besteko egonaldia 1,86 egunekoa izan da apirilean (martxoan 1,77 egunekoa izan zen). Batez besteko egonaldia aldatu egiten da pertsonen bizilekuaren arabera, zeren atzerritarren kasuan 2,06 egunekoa izan baita, eta Estatuko jatorriko pertsonen kasuan 1,83 egunekoa. Bizkaian dago alde handiena: atzerritarren batez besteko egonaldia 2,36 egunekoa izan da, eta Estatukoena, berriz, 1,79 egunekoa.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. 2021eko apirila

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)		RevPar (eurotan)	
	2021/04	p.p.*	2021/04	p.p.*	2021/04	m/m-1 (%)	2021/04	m/m-1 (%)
EUSKAL AE	23,6	1,2	30,8	0,4	77,18	17,3	23,77	19,1
ARABA/ÁLAVA	27,2	2,5	34,4	0,4	69,15	15,3	23,75	16,6
Vitoria-Gasteiz	27,2	2,5	35,9	0,2	67,60	14,7	24,27	15,5
BIZKAIA	21,5	1,3	29,4	1,1	72,40	14,8	21,28	19,1
Bilbao	18,8	-0,1	25,6	0,1	75,81	15,7	19,40	16,1
GIPUZKOA	24,8	0,5	31,0	-0,4	86,62	20,5	26,92	19,3
Donostia / San Sebastián	24,9	-1,4	30,0	-2,8	104,52	25,7	31,40	15,1

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

p.p.* = aurreko hilabeteko portzentajeazko puntuko aldea

2021eko apirilean jarduerarik izan duten hotel-establezimenduen okupazio-mailak, plazei zein eskainitako gelei dagokienez, aurreko hilabeteak baino handiagoak izan dira: 2021eko martxoan % 22,4 izatetik apirilean % 23,6 izatera igaro dira plazen okupazio-mailari dagokionez, eta, gelen okupazio-mailari dagokionez, % 30,4tik % 30,8ra.

Plazakako okupazio-maila % 27,2koa izan da Araban, % 24,8koa Gipuzkoan eta % 21,5koa Bizkaian. Gelen arabera okupazioa % 34,4koa izan da Araban, % 31,0koa Gipuzkoan eta % 29,4koa Bizkaian.

Plazen arabera okupazio-maila handiena izan duen hiriburua Gasteiz izan da (% 27,2); Bilbo, berriz, okupazio txikienarekin geratu da (% 18,8). Gelen arabera okupazio-mailaren bilakaerak antzeko joera erakusten du, nahiz eta aldakuntza txikiagoak izan.

Sektorearen errentagarritasun-adierazleek goranzko joera erakusten dute. ADR (eguneko batez besteko tarifa) 77,18 eurokoa izan da apirilean, martxoan ikusitako 65,78 euroetatik, % 17,3 gehiago. Gehikuntza orokorra izan da Lurraldeetan: Gipuzkoan 86,62 eurokoa izan da (104,52 euro Donostian), Bizkaian 72,40 eurokoa (75,81 euro Bilbon) eta Araban 69,15 eurokoa (67,60 euro Gasteizen).

Era berean, Euskal AEn, RevPar (Gela eskuragarriko sarrera) 19,96 eurokoa izan zen 2021eko martxoan, eta 23,77 eurokoa apirilean, hau da, % 19,1 handiagoa.

Itxita mantendu diren hotel-establezimenduak (%)

	EUSKAL A.E.			ARABA/ÁLAVA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	2021	2020	2019	2021	2020	2019	2021	2020	2019	2021	2020	2019
Urtarrila	42,7	18,2	16,9	41,3	18,7	18,7	38,8	16,2	14,1	46,0	19,7	18,6
Otsaila	42,2	15,1	16,7	42,1	16,0	21,3	37,2	15,0	13,7	46,0	15,1	17,9
Martxoa	31,6	14,1	10,5	25,0	17,3	14,7	28,9	12,7	8,7	35,2	14,3	10,8
Apirila	28,1	91,0	5,7	23,7	92,0	13,3	22,6	87,7	3,5	33,4	93,2	5,6
Maiatza		69,6	6,7		73,3	12,0		66,1	4,7		71,3	6,9
Ekaina		39,8	5,9		38,7	9,3		40,0	5,6		39,9	5,2
Uztaila		17,6	5,4		26,7	9,3		18,3	4,7		14,9	4,9
Abustua		14,2	5,1		26,7	9,3		14,0	4,3		11,3	4,6
Iraila		15,5	4,9		28,0	9,3		16,5	4,7		11,7	3,9
Urria		20,2	6,3		29,3	9,3		20,4	5,1		17,9	6,6
Azaroa		38,4	10,6		36,0	9,3		34,3	10,7		42,2	10,8
Abendua		41,1	12,2		36,0	13,3		38,4	11,5		44,4	12,5

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Hileko egun guztietan itxitako hotel-establezimenduen ehunekoaren bilakaerak agerian uzten du ezen COVID19ari aurre egiteko hartutako murrizketek hotel-sektorean duten inpaktua, handia izan arren, apur bat hobetu dela. 2021eko apirilean hotel-establezimenduen % 28,1 itxita egon dira hileko egun guztietan, 2021eko martxoan baino ehuneko 2,5 puntu gutxiago. Gipuzkoan establezimenduen % 33,4k ez dute inolako jarduerarik izan 2021eko apirilean, Araban % 23,7k eta, azkenik, Bizkaian % 22,8k.

2021eko Aste Santuan (ostegun gaueetik igandekora) 27.738 sarrera eta 47.557 gaualdi erregistratu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan. Zifra horiek 2020az bestelako urteen testuinguruan kokatu behar dira, arestian azaldutako arrazoiengatik. Ildo horretan, Aste Santuko lau gaueetan erregistratutako sarrerek 2019koak baino % 40,9 txikiagoak izan dira 2021ean, eta 2018koak baino % 33,7 txikiagoak. Gaualdiei dagokienez, Covid19aren aurreko bi urteekiko beherakada % 53,4koa izan da 2019arekiko, eta % 46,3koa 2018arekiko.

Lurraldeen arabera, portaera ez da homogenea izan. Izan ere, Araban neurrizkoagoa izan da sarreren jaitsiera 2019. eta 2018. urteekin alderatuta (% 19 eta % 11,3 txikiagoak, hurrenez hurren) Gipuzkoan baino (% 33,3 eta % 29,4 gutxiago) eta, bereziki, Bizkaian baino (2019an eta 2018an baino % 53,2 eta % 44,2 gutxiago, hurrenez hurren). Gaualdien portaera antzekoa da.

Nolanahi ere, nabarmentzekoa da atzerrian bizi diren pertsonen kopuruan izandako jaitsiera, bai sarreretan, bai gaualdietan, % 80tik gora jaitsi baitira, hala sarreretan nola gaualdietan, bi urteekin alderatuta. Aste Santuan joera ez da hain txarra izan Estatuko sarrerei eta gaualdiei dagokienez: % 15 inguru jaitsi dira sarrerek eta % 36 gaualdiak.

Sarrerak, gualdiak eta betetze-mailak hotel establezimenduetan Euskal AEn, eremu geografiko eta jatorriaren arabera. Aste Santua(*)

	Sarrerak				Gualdiak			
	2021	2020	2019	2018	2021	2020	2019	2018
HOTELAK								
EUSKAL AE	27.738	:	46.969	41.808	47.557	:	101.980	88.597
Estatukoak	25.330	:	29.785	29.341	43.203	:	67.668	63.385
Atzeritarrak	2.408	:	17.184	12.467	4.354	:	34.312	25.212
ARABA/ÁLAVA	4.938	:	6.096	5.564	10.190	:	13.083	11.478
Vitoria-Gasteiz	3.271	:	3.754	3.843	6.712	:	8.512	7.959
BIZKAIA	10.469	:	22.385	18.769	16.973	:	47.262	41.276
Bilbao	6.469	:	13.517	11.487	10.092	:	28.999	25.621
GIPUZKOA	12.331	:	18.488	17.475	20.394	:	41.635	35.843
Donostia / San Sebastián	6.820	:	10.101	10.066	11.693	:	23.492	20.650

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzailen inkesta

(*) Aste Santua: Ostegunetik igandera (4 gau)

(:) Informazioa ez dago eskuragarri, dela datuaren kalitatea baxua delako, dela isilpekotasunagatik (konfidentzialtasuna), dela izaera estatistikoko beste edozein motib

Informazio-oharra. Apirileko Hotelen ETHren estaldura **% 94,7koa** izan da. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: Tlf.: 945 01 75 62